



Txapela buruan eta ibili munduan

Bizirik irauteko eskuliburua

EAEko ordezeko irakasleak
2023ko azaroa

- Sarrera. Egungo egoera
- Ordezkoen araudia
- Zerrenden osaketa eta kudeaketa
 - Zerrenden arteko lehentasunak
 - Zerrenda orokorraren ordena
 - Birbaremazioa
 - Zerrendetako egoerak
 - Uko egiteko arrazoiak
 - Zerrendetatik kanporatzea
 - Zerbitzua emateari uztea
- Ikasturte hasierako esleipena -IKHA/COCU- (ekaina)
- Lehentasun eskubidea
- Ordezkgunea
 - Funtzionamendu orokorraren salbuespenak
- Uda kobratzea
- Langabezia + jardun murriztua etab.
- Ordezkoen aldarrikapenak
- Informazio gehigarria



www.steilas.eus

Sarrera. Egungo egoera

Txosten honen helburu nagusia irakasle ordezkoen informazio praktikoa helaraztea da. Hemen jasota dauden hainbat eskubide langileon borrokari eta sindikatu batzuen presioari esker lortu dira.

Borroken ondorioz, aurre-akordio bat sinatu genuen 2018an Hezkuntza Sailarekin (nahiz eta kontu batzuk itxi gabe geratu ziren) eta 2020an Lan akordio berriaren negoziazioarekin hasi ginen, bertan zehazten diren neurriek gure ikastetxeetan eta haietan lan egiten dugun langileon lan baldintzak hobetzeko. Hirugarren ikasturtea da negoziatzeko egutegi bat jarri digutela mahai gainean, eta aurten Lan akordio baten zirriborroa aurkeztu digute. Negoziazio honetan, beti egin dugun bezala, irakasle guztion eskubideak defendatzen jarraituko dugu.

Ordezkoen araudian aldaketak

Ordezkoen araudian eragiten dieten prozesu eta baimen askok aldaketak izan dituzte azken ikasturteotan. Horietako gutxi batzuk gurekin adostuak izan dira, beste asko, ordea, gobernuak aldebakarrez hartutako erabakien ondorio dira. Era berean, aurrerantzean eman daitezkeen aldaketei buruzko jakinarazpenak emango ditugu.

Bestalde, Hezkuntza Sailak ordezkoen araudi berria argitaratzeko asmoa zuela adierazi bazuen ere, gaur egun berririk gabe jarraitzen dugu. Sindikatuekin zati bat negoziatu bazuten ere, adi egongo gara, bertan landuko diren beste puntuak sindikatuokin negoziatuak izateko.

Horrez gain ikasturte hasiera ez-ohiko informazio berriarekin hasi dugu:

- Ordezkoen udako kobraketa. Jada kontratu bukaera bakoitzean oporrei buruzko kitzatzea jasotzen ari dira irakasleak ("3014 oporren kitapena" kontzeptua nominetan). Abuztuan beraz ez dute kontraturik izango. Ez da bidezkoa! Berrito ere murrizketak aplikatzen ari dira.
- Ordezkoen zerrenda, Oposizio-Lehiaketa prozesuari lotuta egotearen mehatxua aspaldi izan dugun arren, lehenengo aldiz, lan-akordio berriaren zirriborroan idatzita ikusi dugu, hau ere ez zaigu onargarria iruditzen!
- Ikasturte hau ere ohikoak bihurtzen ari diren gora-behera batzuekin hasi dugu: tutoreak izango diren ordezko batzuk ikasleekin batera eskolara heldu dira (kasu batzuetan ekidin zitekeen, honek eskolako antolakuntzan suposatzen duenarekin), adingatiko murrizketak berandu heldu dira eskoletara.
- Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritzekin komunikatzeko tresnak (Tramitagune eta Komunikabide) askotan ez dira eraginkorrak, eta langile asko, helduko ez den erantzun baten zain geratzen dira.
- Ordezkoen zerrenda kudeatzeko araudia (2012ko abuztuaren 27koa) seigarren aldiz aldatu da, 2023ko azaroaren 7ko agindu bidez (EHAA).
 - Bertan jasotzen da, Lege Organiko bidez, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen (LHIT) kidegoa desagertzekotzat jotzen dela, eta ondorioz Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidego berria sortzen dela.
 - Kidego berri horretan, LHIT kidegoari atxikituta zeuden 10 espezialitate baino ez dira sartzen, eta gainerakoak, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegora igarotzen dira.

Hezkuntza Sailak, berrito ere ordezkoen eskubideak urratzen jarraitzen du!

Langileon eskubideetan aurrera egitea lortu behar dugu!

Ordezkoen araudia

Ordezkoen araudia
(2023-11-18ra arte)



Titulazioen eta
espezialitateen taula



Arauak



Zerrenden osaketa eta kudeaketa

Zerrenda
gehienak irekita!



Zerrendetan *on-line*
izena emateko gida



Ohar
garrantzitsuak



Sarbidea

1. Zerrendak irekitzeko deialdietan izen-ematea (2018ko aurreakordioari esker guztiak irekita) beharrezkoa den titulazioarekin.
2. Dagoeneko zerrenda batean baldin bazaude, birbaremazio prozesua dagokion titulazioa izanez gero, beste batean sartzeko aukera dago.
3. Oposizio probak gainditzea baina plazarik ez lortzea.

Zerrenden arteko lehentasunak

1. Espezialitateko **zerrenda orokorra**.
2. Espezialitateko **oposizio probak gainditu** dituzten pertsonekin osatutakoa.
3. Zerrendak irekitzearen ondorioz sortzen direnak.
4. Hizkuntza Eskakizunak betetzen ez dituztenek osatutakoak.
5. Prestakuntza Pedagogikorik ez dutenen zerrendak (Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketan).

Oharrak: Bigarren eta hirugarren puntuetakoak birbaremazio prozesuan zerrenda orokorrean sartuko lirateke. Adi egon beharra dago ziurtatzeko hori gauzatzen dela.

Laugarren eta bosgarren puntuetakoek ezin izango dituzte aukerak aldatu (lurralde historikoa eta jardun mota).

Zerrenda orokorraren ordena

Espezialitate bakoitzeko zerrenda orokorra puntuen arabera ordenatzen da. Irizpide garrantzitsuenak (gehiago Ordezkoen Araudiko eranskinetan):

| | | Puntuazioa |
|--|--|--|
| Esperientzia irakaskuntza arautuan | Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan | <ul style="list-style-type: none"> • 60 egun = puntu 1 • Espetxeetan, 60 egun = 2 puntu |
| | Pribatuan eta Haurreskolak Partzuergoan | • 60 egun = 0,33 puntu |
| | Haur-eskola pribatuetan | • 60 egun = 0,11 puntu |
| Prestakuntza akademikoa | Eskakizunezko titulazioaren espediente akademikoa | <ul style="list-style-type: none"> • 9tik 10era, puntu 1 • 7tik 8,999ra, 0,75 puntu • 6tik 6,999ra, 0,50 puntu • 5etik 5,999ra, 0,25 puntu |
| | Bestelako gradu edo lizentziaturak | • Puntu 1 |
| | Diplomaturak | • 0,5 puntu |
| | Master Titulu Ofiziala (urriaren 29ko 1393/2007 EDk arautua) | • 0,5 puntu |
| | Doktore-titulua | • Puntu 1 |
| Hautaketa-prozesuak gainditzea | Oposizio fasea 2019tik aurrera gainditu izana | • 6 puntu |
| Lanbide Heziketako sektore bereziak | Arloan izandako lan esperientziaren hilabete bakoitzeko | • 0,25 puntu (hilabete bakoitza) (gehienez, 15 puntu) |
| Musikako irakaskuntzak, Arte dramatikoa eta Dantza irakaskuntzak | Arloan izandako esperientzia | • *Begiratu ordezkoen araudiko 1. eranskinaren C, D eta E atalak |

Birbaremazioa

- Ordezkoen **zerrenda eguneratzeko** da eta azaroan egiten da, baina data horrek aldaketak izan ditzake.
- Epe horretan **Hezigunea** bidez hautagaiaren fitxa kontsultatu eta datuak zuzenak diren egiaztatu daiteke, aurreko taulako baremoak barne.
- Aukeratutako **lan-aukerak aldatzeko; lurraldea, jardunaldi mota, espezialitateak gehitu edo kendu, etab.**
- **ADI!** Behin-behineko zerrendak ateratzean **erreklamazioak** egin, eta behin betiko zerrendari **gora jotzeko errekurtsioa** ere egin ahal zaio.
- Birbaremazioetan egindako aldaketak hurrengo ikasturtean jartzen dira indarrean.
- Ez ahaztu "Izangaiaren fitxa" deskargatzea eta gordetzea, prozesuak irauten duen bitartean egongo delako bakarrik ikusgai.

Zerrendetako egoerak

1. Lanean.
2. Lanerako prest.
3. Jarduera-eten iragankorreko egoera haurrak 3 urte bete arte (*Suspensión transitoria*).
4. Aldi baterako baja, honako baldintzaren bat egiaztatuz:
 - a. Gaixotasun arrunta.
 - b. Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako baja.
 - c. Haurdunaldian arriskuan egotea edo arriskuko haurdunaldia izatea.
 - d. Gurasotasuna, adopzioa eta harrera.
 - e. Odol edo ezkontza-ahaidetasuneko 2. maila arteko senideen gaixotasun larria edo heriotza.
 - f. Norberaren ezkontza edo izatezko bikotea eratzea.
 - g. Askatasuna kentzea, kondena epaia ematen ez den arte.
 - h. Hezkuntza administrazioek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
 - i. Ikasketa-beka baten onuradun izatea.
 - j. Ikasketa ofizialetan edo praktiketean aritzea.
 - k. Lan-kontratua izatea edo autonomo gisa altan egotea.
 - l. Atzerrian GKE (ONG) bati zerbitzuak ematen egotea.
 - m. Zerbitzu berezietan egotea.
 - n. Indarkeria-mota baten biktima izatea.
 - o. Ahalmeneko protokoloaren ebazpenaren zain egotea.

| Aldi baterako BAJA egoera hauetan zaudela, ordezkapenak eta bakanteak esleituz gero, KONTRATU FIKTIZIOPEAN zaude! (37. art) | Esleipenetan parte hartzea | Birbaremaziorako puntuak | Oporrak kobratzeko balio dute | Antzinasuna sortzen dute | Zerbitzu orria, puntuak EPErako... | Kotizazioak | Bakantea bada, egoera bukatzean lanera |
|--|----------------------------|--------------------------|-------------------------------|--------------------------|------------------------------------|-------------|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Lan istripua / Lanbide gaixotasuna • Gurasotasuna / Adopzioa / Harrera • Haurdunaldian arriskua / Arriskuko haurdunaldia | BAI | BAI | BAI | EZ | EZ | EZ | BAI |
| <ul style="list-style-type: none"> • Jarduera-eten iragankorra [<i>Suspensión transitoria</i>] • Zerbitzu berezietan egotea | BAI | BAI | EZ | EZ | EZ | EZ | BAI |

- Bajaren justifikazio egoera sortu eta 10 egun naturaleko epean egiaztatu!
- Egoera amaitzean lanerako prest zaudela jakinarazi behar da, **10 egun naturaleko epean (bestela, zerrendetatik kanporatua izan zaitezke).**

Uko egiteko arrazoiak

Eskaintza egiten den unean jakinarazi behar da:

1. Aldi baterako bajaran egoteko baldintza bat betetzea (**egiaztatzeko 10 egun**).
2. Plaza jakin gutxi batzuei (Berritzeguneak...) uko egin ahal zaie zerrenda espezifiko horretan ez bazaude. Bestalde, plaza horietara joan nahi izanez gero, unean duzun plazari uko egin diezaiokezu (34. eta 40. art.).
3. Esleitu eta hurrengo 15 egun naturaletan postua betetzeko gai ez dela adierazten bada (zuzendaritzak edo langileak) (46. art., protokoloa).
4. Aniztasun funtzional fisikoa duen pertsona batek lanpostuaren zereginak bete ezin izatea.
5. Lanbide Heziketako ezaugarri berezietako lanpostuetan (begiratu 46. artikulua).

Zerrendetatik kanporatzea

Kanporatzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

1. Ordezkoak berak eskatzea.
2. Karrerako funtzionario izendatzea. Horrek izendatua izan zaren kidego horretako espezialitate guztietatik kanporatzea dakar.
3. Derrigorrezko erretirorako adina izatea (70 urte).
4. Eskaintzari uko egitea onartutako arrazoirik eman gabe. Horrek espezialitate guztietatik eta lurralde historiko guztietatik desagertzea dakar.
5. Uko egiteko arrazoiak ez alegatzea edo ez egiaztatzea, aginduak ezartzen dituen epe eta baldintzetan.
6. Esleitutako lanpostura ez joatea.
7. Diziplina-espedientea jasotzea, hutsegite larri edo oso larri batengatik.
8. Eginkizun arruntak gauzatzeko gaitasun-falta nabaria izatea (45. art.).

Laugarren, bosgarren eta seigarren kasuetan, kanporatutako ikasturtean eta hurrengoan ezin izango duzu sartu berriro zerrendetan.

Zerbitzua emateari uztea

- Ordezkapenaren azken egunean, hautagaiak **09:30etik 13:00etara** izango du soilik bere **lan egoera aldatzeko aukera**. Ordu tarte horretan "lan egiteko moduan" jartzen bada, egun horretan eskaintzen diren plazak hautatu ahal izango ditu.
- Ordeztaguneak lan egoera aldatzen uzten ez badizu, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzari **jakinarazi** ahalik eta azkarren!

Ikasturte hasierako esleipena -IKHA/COCU- (ekaina)

Datak

Prozesua urtero irekiko da Langileria Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, ekainaren bigarren hamabostaldian.

Prozesua ekainean hasi eta uztailean zehar bukatzen da.

Hezkuntza Sailak prozesuaren informazioa web orrian argitaratuko du eta hauek dira bertan azaltzen direnak:

- Prozesuaren egutegia.
- Ebazpena.
- Kidego bakoitzeko prozedurak.

Prozesuaren inguruko gorabeherak

Ekaineko esleipenean, lanpostuen aukeraketa edozein lurralde eta jardunean egin daiteke (birbaremazioko baldintzek ez dute eragiten).

Esleipena puntuazioaren arabera egingo da.

Borondatezko prozesua da eta borondatezko atalean hautatutako lanpostuen artean soilik lehiatuko da. Lanpostu bat inork ez badu hautatzen, hutsik geratuko da eta ordezkagunean eskainiko da.

Irakaskuntza ertainetan, soilik 1. afinitateko lanpostuak har ditzakezu.

Ikasturteko lehenengo egunean gaixotasun arruntagatik bajaran egonez gero, ezin daiteke lanpostuaren jabetza sinatu; beraz, urte osoko lanpostua galtzen da, 2 urteetarako kanporatuz.

Ohar garrantzitsuak

Administrazioak Hezkuntzaren web orrian, IKHA/COCU-n (iragarki taulan) atalean argitaratuko ditu izendapenak.

Arazoak esleipenetan

Ikasturte hasierako esleipenean edo ikastetxera heltzerakoan arazoren bat balego (plaza ez existitzea, plazaren definizioa aldatzea, etab.) lehenbailehen dagokion Lurralde Ordezkaritzara jo ezazu eta sindikatuei jakinarazi, arazoari berehalako irtenbidea bilatzen saiatzeko.



Lehentasun eskubidea

Zer da?

Ezaugarri berdinak dituen lanpostu batean jarraitzeko lehentasuna, derrigortasunik egon gabe.



Nork du lehentasun eskubidea?

Aurreko ikasturtean, irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n amaitzen den lanpostua lortu duten bitarteko langileek.

Non izan dezakezu lehentasun eskubidea?

Ikastetxeko espezialitate, hizkuntza-eskakizun eta jardunaldi bereko lanpostuan (jardun murriztuen %-ak ez du eraginik. Guztiak murriztutzat hartzen dira).

Horrek esan nahi du lanpostu berean geldituko zarela?

Ez. Ezaugarri berdineko lanpostu batean izan daiteke (ikastetxe, espezialitate, hizkuntza-eskakizun eta jardun berdinekoan). Ez du zertan lanpostu bera izan.

Zer gertatzen da bi pertsona badaude egoera horretan eta lanpostu bakarra badago?

Zerrenda orokorreko puntuazioa hartuko da kontuan, berdinketa hausteko.

Beraz, ezaugarri horiek betetzen dituen lanposturik bada, bertan gera zaitezke?

Beti ere karrerako funtzionario batek edo praktikaldia egin behar duen irakasle batek lanpostu hori hartuko ez balu eta lanpostu hori betetzeko beharrak mantenduko balira.

Hemen informazio zabalagoa



Ordezlagunea

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko eskaerak telematikoki kudeatzea ahalbidetzen duen plataforma da. **Bi funtzio nagusi** ditu:

| 1. Oinarrizko datu pertsonalak berrikustea/eguneratzea/biltzea | 2. Ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko kudeaketa |
|---|---|
| <p>Harremanetan jartzeko datuak, Hezkuntza Saila hautagaiekin telematikoki komunikatzeko (e-mailez edota telefonoz).</p> <p>Hautagaiaren ohiko helbidea, beharrezkoa denean, sistemak hautagaiaren ohiko helbidetik EAEko edozein ikastetxe publikora distantzia kilometrotan kalkulatu dezaten.</p> | <p>Ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko eskaintza eta lanpostu horien ezaugarriak egunero kontsultatzeko aukera ematea.</p> <p>Hautagaiari eskaintzaren barruan estali nahi dituen lanpostu hutsak eskatzeko eta eskaerak lehenesteko aukera ematea.</p> <p>Hezkuntza Sailera lanpostu hutsen eskaera bidaltzea.</p> <p>Sailak egunero egiten dituen esleipenetara sartzea eta jakinarazpena bitarteko hauen bidez jasotzea: e-maila, SMSa edota telefono deia.</p> |

Ohar garrantzitsuak:

1. Esleipenean lanpostu bat lortzeko aukera izateko, egunero parte hartu behar da ("lanerako prest" bazaude).
2. Ordezlaguneko ordutegia:
 - a. Lanpostu hutsak estaltzeko eguneroko eskaintza argitaratzeko eta eskaerak egiteko: **13:30etik 15:30era**.
 - b. Esleipena ikusteko: **15:45ean**, nahiz eta ordu hori alda daiteke eskainitako plaza-bolumenaren arabera.
 - c. Nire **lan egoera aldatzeko**: **9:30etik 13:00etara** bakarrik.
3. Ordezlagunean parte hartzea borondatezkoa da. Gogoratu "lanerako prest" egoeran dagoenari, hutsik geratu den lanpostua nahitaez esleitu ahal zaiola.
4. Irakaskuntza ertainetan, 2. afinitateko lanpostuak ere har daitezke.
5. Abuztu amaierako eskaintzak Ordezlagune bidez dira.

Funtzionamendu orokorraren salbuespenak

1. Ordezkapena bukatu eta **10 irakastegun* baino lehen** irakasle berbera ordezkatzeko beharra sortzen bada eta ikastetxeak horrela jakinarazten badio dagokion Lurralde Ordezkaritzari, ordezko berdina egingo du ordezkapen hori, oraindik lanerako prest eta kontraturik gabe badago.
2. Pertsona bat lanaldi osoko ordezkapen bat egiten ari bada, eta postuaren **titularra lanaldi murriztuarekin itzultzen bada** lanera, ordezkapena egiten ari zen pertsonak jarraitu beharko du ordezkapena egiten lanaldi murriztuko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du lanaldi murriztuarekin jarraitu nahi duen edo ez.

***Irakasteguna:** astelehenetik ostiralerako eguna, irakasleontzat laneguna bada.

3. Pertsona bat lanaldi murriztuko postu bat estaltzen ari bada, eta hori **lanaldi osoko postua bihurtzen bada** edozein arrazoi dela eta, lanaldi partzialean izendatuta zegoen pertsonak jarraituko du lanaldi osoko postuarekin, lanaldi osorako puntuazio hobea duten pertsonak badaude ere, lanaldi osoko aukera hautatu bazuen; bestela, berak erabakiko du postuarekin jarraitu edo ez.

4. Pertsona bat lanaldi murriztuko ordezkapena egiten ari bada, eta ikastetxe berean **lanaldi murriztuko beste ordezkapen bat egiteko premia** sortzen bada eta ikastetxeak dagokion Lurralde Ordezkaritzari horrela jakinarazten badio, hautagai horrek lehentasuna izango du ordezkapen hori egiteko, puntuazio handiagoa duten hautagaiak baldin badaude ere, zerrendan 1. kidesunarekin baldin badauka, eta ordutegi-bateragarritasuna badu.
5. Lanpostu bat hutsik geratzen bada inork hautatu ez duelako, zerrendan azken posizioan dagonari esleituko zaio eta mezu edo e-mail bidez jakinaraziko da.

Uda kobratzea

Aldebakarrez Hezkuntza Sailak aldaketak ezarri ditu. Atzerapauso galantak ordezkoen eskubideetan!

1. Orain arte horrela egin da udako kobrantza eta puntuaketaren kudeaketa:

Ikasturtean zehar 165 egun (hilabete=30 egun) lan eginez gero, kontratu berria egingo dizute uztailan. Gizarte Segurantzari altan egongo zara, baina, egun gutxiago izan badira, askoz gutxiago kobratuko duzu udan:

| Lan egindako egunak | Kobratzeko egunak | Lan egindako egunak | Kobratzeko egunak |
|---------------------|-------------------|---------------------|---------------------|
| 5 arte | 0 | 101 arte | 8 |
| 17 arte | 1 | 113 arte | 9 |
| 29 arte | 2 | 125 arte | 10 |
| 41 arte | 3 | 137 arte | 11 |
| 53 arte | 4 | 149 arte | 12 |
| 65 arte | 5 | 161 arte | 13 |
| 77 arte | 6 | 164 arte | 14 |
| 89 arte | 7 | 165etik gora | Uztaila eta abuztua |

Ordezkoak 165 egunetik gora lan egin badu, kontratua indarrean izango duzu abuztuaren 31ra arte, beraz, epe horretan ez dago langabezia kobratzerik.

2. Ikasturte honetatik aurrera aplikatzen ari direna:

Hezkuntza Sailak azken urteetan adierazi du ordezkoen udako kobraketa aldaketak ezarri nahi zituela. Aurten, alde bakarrez erabakita nominetan ikusi dugu oporren likidazioa (3014 oporren kitapena kontzeptupean) ordaintzen hasi direla. Ondorioztatu dezakegu beraz, abuztuaren kontraturik ez dela egingo kontratu bakoitzaren amaieran oporrak likidatzen ari direlako.

Zer gertatuko da udako puntuekin? Zer gertatuko da uztailarekin? Behin eta berriro galdezka gabilta eta ez dugu erantzun argirik jasotzen.

Ordezkoen lan baldintzetan atzerapausu nabarmenak gertatzen ari dira, aldebakarrez hartutako erabakien ondorioz eta langileoi informaziorik eman gabe. Nahikoa da!

Langabezia + jardun murriztua etab.

Lan kontratua amaitzean edo jarduna murrizten bazaizu zure borondatez izan gabe, langabezia prestazioa eskatu dezakezu (egun ez dago oso argi SEPEk zein baldintza eskatzen dituen langabezi prestazioa onartzeko).

Prestazioa eskatzeko, egoera hori sortu eta 15 laneguneko epean SEPEn hitzordua hartu behar da.

Ordezkoen aldarrikapenak



**ORDEZKOENTZAKO
LIZENTZIAK ETA
BAIMENAK HOBETU!**

**INTERINITATE
TASA JAITSI!**

**ORDEZKAPENEN
INFORMAZIOAN
GARDENTASUNA!**

**HEZKUNTZA SISTEMAK PAIRATZEN DUEN
PRIBATIZAZIO BORTITZAK ORDEZKOEN
LANPOSTUAK SUNTSITZEN DITU!**

PRIBATIZAZIORIK EZ!

**ORDEZKOEK UDA KOBRATU
AHAL IZATEKO LANEGUN
KOPURUA MURRIZTU!**

**GURE ESKUBIDEAK
BERMATZEKO, LANGILEOK
ARRETA ZERBITZU DUINA
BEHAR DUGU!**

**60 URTETIK GORA JARDUN
MURRIZKETAK GUZTIONTZAT!**

Informazio gehigarria

Lan baldintza orokorrak:
185/2010 DEKRETUA



Ikastetxeen funtzionamendua:
**Ikasturte hasierako
ebazpenak**



**Lizentziak
eta baimenak**





www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus



Txapela buruan eta ibili munduan
Bizirik irauteko eskuliburua
EAEko ordezeko irakasleak
2023ko azaroa